

jokulariak 122

**EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS**
udaberria 2021 primavera



www.aisge.es

AISGE

es lo tuyo

Si eres actor o actriz audiovisual,

¡HAZTE SOCIO!

No te
costará
nada.

Te beneficiarás
de nuestra labor
asistencial y
formativa

Y recibirás los
derechos que te
corresponden



122

udaberria
primavera
2021

SUMARIO

04	Hemen berdintasunaren bidea jorratzen Eneko Olasagasti	14	Mujeres y artes escénicas: creer para crear Virginia Imaz y Ana Pérez
10	Una mayoría visible María Goiricelaya	18	OHARRAK
12	Euskarazko antzerkia generoaren begiradatik Eneritz Artetxe		

jokulariak



EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERIA


DONOSTIA
Portuetxe n° 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@euskalaktoreak.eus
eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

**Koordinazioa, edizioa
Eneko Olasagasti
Maketazioa, diseinua
I. Z.
Inprimategia
Antza
LG/DL SS168/2000**

Gogoratu aldzikari hau
denona dela eta gustura
hartuko genituzkela zure iritsi eta
artikuluak.
Recordad que esta revista
es de todos y que
gustosamente recibiremos tus
opiniones y artículos.



HEMEN BERDINTASUNAREN BIDEA JORRATZEN

Testua Eneko Olasagasti
Argazkiak (H)EMEN



“Etorkizuna feministea izango da edo ez da izango” da gizarte mugimendu askotan entzuten den leloa. Eta guk guztiz bat egiten dugu berarekin. Etorkizunera begira jarri aurretik egungo egoera nolakoa den jakitea ezinbesteko iruditzen zaigu eta horrexegatik eskeini dugu gure azken ale hau osorik “Berdintasuna” jorratzeko. Bai Arte Eszenikoetan eta baita IkuSentzunezkoetan ere. Horretarako, batetik, bazkide batzuen laguntza izan dugu. Eta bestetik, (H)EMEN-eko Zuzendaritza Batzordeko bi ordezkari eta EABko afiliatuak ere badiren kideak, elkarritzetatu ditugu: Olatz Beobide eta Tessa Andonegi. (H)EMEN-ekoek gurekin lotura zuzena duten bi arloetako Berdintasuna jorratzen dute. Beraiei buruz gehiago jakin nahian hemen duzue haietkin izandako elkarritzeta.



Nola sortzen da (H)EMEN?

Olatz- 2016ean sortu zen pertsona batek beharra eduki zuelako eta ekintzara pasa zelako. Behar hori ere jende gehiagok zeukan, batez ere ikusentzunekoetan, bere arloa zena, emakumeen presentzia ez delako behar bezalakoa, ez dagoelalo berdintasunik. Eta gero jende askok esaten ziolako: ez dago hainbeste emakume, ez dago hainbeste emakume. Eta orduan, nazka nazka eginda zegoen hori entzuteaz eta esan zuen: ea... goazen datu base bat egitea. Beka bat eskatu zuen, eman egin zioten... eta hemen gaude.

Tessa- Izaskun Arandia zela esan behar da.

Olatz- Bai, noski... Izaskun Arandia izan zen.

Behar pertsonal batetik abiatu zela esan duzu.

Olatz- Behar pertsonal kolektibizatua esan dezakegu.

Tessa- Kanpoan eman zuen bolada bat.

Olatz- Hori da... Eta bueltakoan behar hori nabarmenago ikusi zuen.

Tessa- Ingliterran egona zen.

Ta aldea ikusi zuen Inglaterra eta Euskal Herriaren artean?

Olatz- Bai. Ziur aski Industria mailan bai sentituko zuen hemen zeuden baliabideak kontutan izanda, mugimendu posible batuetarako aukera handirik ez zegoela eta gu hain txikiak izanik ere ez zegoela emakumea berdin ordezkatua, ez zeukala leku berdina. Eta orduan esan zuen, hemen hasi behar gara emakumeak indartzen eta ahal-duntzen bestela jai daukagu.

Tessa- Eta gero ez dakit zer ikusia izan zuen baina Behato-

kiak egin zuen ikerketa 2016koa da. Ikerketa horretan azaltzen zen zenbakien aldetik nolakoa zen alde. Ikasketa arloan emakumeen presentzia %55 da, lan mundura pasatzerakoan %35...

Eta zuek gidoilarien adibidea ipintzen duzue, %5/6...


Olatz- Beharra argi dago. Ez da bakarrik sentsazio bat emakumeen aldetik. Ez bakarrik lana suposa dezakeela emakumeak ahalduntzea edo sinestea gugan. Ez da hori bakarrik, zenbakiek ere hitzegiten dute. Eta orduan ba... inebitablea zen.

Zergatik uste duzue gertatzen dela Ikasketa mundutik lan mundura ematen den alde hori?

Olatz- Faktore diferenkeak hartzen dira kontutan. Batetik berez emakumeak daukan zaitasun hori lan munduan murgiltzeko...

Konziliazioa...

Olatz- Konziliazioa bai. Kontrataziotik abiatuta... konziliazio hori edota umeak izateko asmoa baldin baduzu, familia bat osatzeko, ta gauza guzti horiek hor daude... Enpresa munduan batzuk esaten dute: ba ez dut kontratatuko, zeren hemendik hiru urtera errelebo bat egin beharko dut. Oso garbi dago gaur egun hori asko gertatzen dela. Eta emakumeak berak ere ardurak hartzeko orduan ba esaten du, agian geratzen naiz lan txiki honekin eta ez naiz sartuko orain saltsa handiagotan zeren igual hemendik urte gutxitara... ez dakit ahalako dudan. Hori da alde batetik eta bestetik lan mundua, azkenean, gizonezkoen mundu bat da zine industriari begiratuz gero, eta ohiturak, tradizioak,



kimikak, ezagutzak egiten dute modu batean edo bestean lan-lana lortzea. Azkenean berdintasunera iritsi nahi dugu baina oso zaila da. Datuekin diru publikoan eragin dezakezu. Baina ezin duzuna da datuekin pertsonak kontrolatu. Eta pertsonak lan egingo du batekin, aurretik bearekin lan egin badu edo ezagutzen badu edo norbaitek gomendatzen baldin badio zeren hau oso mundu txikia da, Euskal Herrian behintzat. Ezezagun bat gutxitan sartzen da lan merkatu zehatz batean. Hori gerta dadin emakume horiek lehenagotik aritu behar dira gauzak egiten.

Tessa - Eta batez ere oso maskulinizatuak dauden lane-tan... makinista bat hartzeko unean edo soinu teknikaria bat, elektrikariak. Badira lanpostu batzuk urtetik urtera aldatzen ez direnak. Eta esaten duzu, zergatik ez da egongo emakume makinista bat, edo emakume elektriko bat?

Olatz - Azkenean betikoa, zailagoa da boterea duten lanpostuetara iristea edozein tokitan eta zinean ere. Zuzendariak, ekoizleak, ekoizle exekutiboak. Orain ikusten ari da kuota txiki horiekin edo puntuaketekin, ekintza positibo horiekin, gehienak estatistik datozenak, ICAAk ezarritako %35 horretatik, berehala agertzen direla emakumeak. Beraz egon badaude. Azkenean ez zeudela dioen kontu hori ez da egia.

Tessa - Egon badaude horretarako ikasketak egin dituztelako.

Olatz - Eta ez horregatik bakarrik. Edo esperantzarekin edo beste lan batzutan arituak direlako, hala nola bilatzen dutelako bere ogibidea.

Tessa - Hemen ere beste xede nagusietako bat esango nuke emakumeen ahalduetza dela. Hau da, guk gugan sinestea. Guk lan horietako askotan geure burua normaltzat ikustea.

Sortu zinetenetik gaur arte izan duzuen jarduna errepara dezakegu, iruditzen bazaizue.

Olatz - Hasieratik datu basea sortu zen eta hori izan da gure faroa. Gaur egun 350 pertsona daude hor sartuta. Eta hor bi lerro nagusi ditugu. Batetik emakumeak sartzen dira profesional gisa eta gero genero guztiakoak kontratatzalea bezala. Azkenean mundua denon artean aldatu behar dugu eta ez zeukan zentzu handirik hor, kontratatzalean zerrendan, emakumeak bakarrik egotea. Eta horretarako, ez ze-rendra baterako ez besterako, ez dago baziak izan beharrak. Baziak izan nahi baduzu izena ematen duzu, kuota ordaintzen duzu eta baziakidearen betebehar eta eskubideak dituzu. Kontratatzaleen zerrendan sartzea dohainik da. Datu Basea ere dohainik da. Azken batean nahi duguna da zerrenda horretan egotea Euskal Herriko emakumezko profesional guztiak. Amets bat da baina nonbaitera iritsiko da.

Eta zenbat dira baziakideak?

Olatz - Ehun bat inguru.

Tessa - Nik uste ekintza oso potenteak eduki ditugula. Elkarrean oso aktiboa da. Orain arte izan ditugun ekintzetan, pandemiarena kontutan hartuta noski, Topaketek, esaterako, partaidetza handia izan dute. Egiten ditugun profesionalen arteko Topaketetan, gai bat hartuz edo lanbide bat hartuz... aktoreak izan dira, ekoizleak izan dira, gidoiliariak. Denak emakumeak. Oso baliagarriak izan dira guk ere gure indarra ikusteko.

Olatz - Esperientzia diferenteak ikusteko, belaunaldien arteko elikatze hori sortu, lanbideen arteko trukaketa eta gero bizipenak daude ere. Zeren azken batean betikoa da.

Zuri gertatu zaizuna entzuten dute eta diote "Ostras! Berdina da ta! Ni bizi naiz Amurrian eta zu egon zara lau urte Bartzelonan eta berdina kontatzen ari zara." Horrek lasaitu egiten du nolabait, lagundu egiten du ahalduntze horretan konfidantza hartzen. Ea, arazoa ez da nirea, ez naiz ni. Egoeragatik da, lan moldeengatik sortzen diren ohiturak eta hautsi egin behar direnak.

Eta nola lortzen duzue ikusgarritasuna, jendearen gara iristea? Zuk, Olatz, eskatu zenigun bidea egitea Reseterrekiko (Arte Eszenikoen Plataforma) eta deigarria egin ziztaidan ez zutela ezagutzen, ordezkariekin gehiengoa emakumezkoia izanik. Zer da, gipuzkoar zentrismoa edo zer da?

Olatz- Iku-sentzunezko zentrismoa dela esango nuke. Iku-sentzunezko jendeak denak ezagutzen gaituzte, zine jaialdi guztietan gaudelako. Hor presentzia handia daukagu. Beste elkarrekin lankidetza oso erraza daukagu, gidoilarietkin, ekoizleekin a tope gabiltza. Urtero sortzen da zerbaitek. Jaurlaritzan, ETBn, oraintxe Zinemaldian, Filmotekan, ez da egon bagaudela soiliik baizik eta gauzak egiten ari garela. Asko zentratu gara iku-sentzunezkoetan...

Tessa- Sortzaile nagusienetako bat, Izaskun, mundu horretatik dator eta horrek markatu egin du.

Olatz- Lehenengo juntakideak, ni izan ezik, denak zetotzen iku-sentzunezkoetik. Hain helburua beti izan arte eszenikoak hor egotea. Iruditzen zitzaielako hor ere egon erebehar zela baina gero haien ezagutzera eta haien erralitateak ez dio hori lehentasunik eman.. Orain Batzorde bat sortu da horretarako.

Tessa- Nire ikuspegiaren arte eszenikoetan eta iku-sentzunezkoetan ez da errealitye berdina ematen. Gu aspalditik ohituak gaude arte eszenikoetan emakume zuzendari, emakume ekoizleak egotea.

Olatz- Horrek nolabait adierazten du diru kontua ere badela. Arte eszenikoetan erabiltzen diren aurrekontuak askoz txikiagoak direlako. Zinean erabiltzen direnekin ez daukate zer iku-sirik. Eta hor ere, ikusten baduzu Behatokiak egindako txosten kuantitatiboan aipatzen da, aurrekontuaren arabera, zenbat eta bajuagoa izan, edo dokumentala direla edo aurrekontu baxuko egitasmoak, emakumeen presentzia handiagoa dela. Eta aurrekontuek gora egiten duten neurrian emakumeak desagertu egiten dira. Zenbat eta diru gehiago egon zailagoa da emakumeen presentzia hor bermatzea. Industriak ez duelako emakume baten esku uzten monta handiko pelikula bat. Badirudi Ameriketan hori aldatzen ari dela eta emakumeak ari direla goiko postuetara iristen zinema komertzialaren arloan. Zeren orain arte lotuagoak egon dira, esaterako, zinema independientearekin.

Diru ari zaretenez, zer diozue soldatetan beste arloetan ematen den arrakala ekonomikoaz? Horri buruz eta gure arloei dagokienez datuak badituzue?

Olatz- Ez dakigu. Hor, Behatokiak egin zuen ikerketan ez da horri buruzko daturik ematen.

Tessa- Lojikoena da pentsatzea beste lanbide guztietan ematen diren joerak gurean ere segida izango dutela. Gehiago ez dugu kobratuko, hori seguru.

Olatz- Pentsatzeko da gutxienekoa denok izango dugula berdina. Horretarako ditugu konbenioak, baina hortik aurrera ya... Nik ez dut behin ere jakin, gainera herri honetan diruaz hain gutxi hitz egiten denez zailagoa oraindik. Nire anai-arrebek irabazten dutena ere ez dakit. Nik ez dut inoiz jakin nire lan berdina egin dutenek gehiago kobratu duten edo berdin.

Tessa- Olatzek aurrekontuei buruz esan duenari jarraituz. Pentsatzeko da lan kaskarragoak egiten baditugu gutxiago ere kobratzen dugula.

Olatz- Bestelako datuetaz... Azken hamarkadetan Euskal Herrian egin eta areto komertzialetan estreinatu diren filmen %10a besterik ez da emakumeak zuzendutakoak eta datu hauetan arlo guztietara zabaldu daitezke. Bestetik, sentsa-zioa dago oso ondo goazela baina datuak ikusterakoan kon-turatzen zara oraindik koska bat baino gehiago falta zaigula.

Tessa- Igual erronka handiena normalizazioarena da. Oraindik ere kuoten asuntoarekin badago folklore puntu bat. Lehengoan jaialdi batetik deitu ziguten epamahaikide izateko eta "necesitamos una mujer" entzun behar, jirafa bat edo elefante bat behar duenak bezala.

Olatz- Emakume hori zerbaite da lanbide honetan, ez emakumea soiliik. Ez dago ez eta bigarren pentsamendu hori. Horrek adierazten du oraindik zenbat falta zaigun.

Zuen web orrian begiratuta ALICE hitza agertzen da. Hizki bakoitzak zerbaite adierazten du, ez?

Tessa- Lehenengo letra, A, Aukera egitasmoa adierazten du. Iku-sentzunezkoan arrorako Mentoretza egitasmoa da. Ikasketak bukatu berri dituztenei zuzenduta dago. Emakume gazteak aurrera atera ahal izateko, diru aldetik eta mentoretza aldetik babesia emateko. Konturatu ginen hor bazegoela beharra. Eskolatik atera eta lan munduan murgiltzeko momentuan. Momentu hori latza da.

Esango nuke zabalagoa ere badela zeren 36 urte bitarteko emakumeei zuzenduta dago. Ikasketak egitetik ateratzen direnak baino muga zabalagoa. Badirudi hala ere ekimen gehienak gazte jendeari zuzenduta daudela. Asumituta edukiko bagenu bezala adin batetik gorakoak kanpoan gelditzen direla.

Olatz- Hori nolabait gizarteak bultzatutako eragina da. Nik irakurtzen dut egunkarietan gazteantzako alokairuak erregulatu behar direla. Ni ez naiz gaztea baina alokairuan bizi naiz. Nonbait hori lortu behar duena gazte jendeari, badirudi besteak baduela. Egia da diozuna baina nonbaitetik hasi behar da eta gu katebegi ahulenean fijatu gara, horregatik gazteei zuzendu. Urte batzuk kostatu zaigu

finanziazioa lortzea. Bestetik, merkatutik gertu egotea nahi genuen, laburretara mugatu dugu gazteengandik gertuago egon dadin eta zuzendaritza mentoretzari garrantzia eman ere. Mentoretzatan gutxien lantzen den alderdia de-lako, eta gero ekoizpena. Hori oso oso importantea zen. Ekoizpena sartzen den momentutik ekoiztetxe batetara zoaz. Eta ekoiztetxe batekin gidoi bat lantzen ari bazara...

Beraz, helburua ekoiztea da?

Olatz- Helburua egitea da. Bost lantalde izango dira eta horietatik bost egitasmo aterako dira. Zinebin pitchinak egingo dira, merkato profesional baten aurrean, eta horietatik bi sarituko dira. Besteei lagundu egingo zaie arlo differentetan, diru laguntzeta nola aurkeztu esatebaterako. Hori 2021ean. 2022an ekoizle horiek edo beste batzuekin finanziazioa lortu ez eta egin ez badira 22an oso landuta iritsiko lirateke laguntzeta, ziurrenik ekoizpenaren parte bat bermatuta ere. Hori da asmoa; lagundi. Egiteko edo iristeko. Asmoa zen labur guztiak egitea baina ez daukagu nahikoa diru. Bik hiru mila eurokoa jasoko dute. Dagoeneko laburren munduan dabilen jendeak profesionalago lan egin ahal izan dezan.

Bai eta ez... Zeren jakin badakigu laburretan dabilen aktore jendeak ez duela kobratzen.

Olatz- Hor borroka paraleloak daude. Gutxieneko batzuetara iritsi beharko genuke alor guztieta. Gizarte Segurantz alta emanda egotea behintzat.

Tessa- Lehenengo urtea pasata ikusi beharko da, balorazioak egin eta hobetzen joan.

ALICE-ko letrekin aurrera eginez L-a da bigarrena: Lokailuak.

Olatz- Lokailuak dira orain arte antolatu ditugun, eta antolatzen jarraituko dugun, aipatutako Topaketa Profesional horiek. Azken batean horren azpian dagoena sarezte lana da, elkarrekin lan egitea. Pasada bat da zein azkar sortzen diren sinergiaek. Berehala sortzen dira gauzak elkarrekin egiteko ahaleginak.

Tessa- Jendeari ematen zaizkio itxaropena eta harremanak.

Eta zein izango da hurrengoa?

Olatz- Hurrengoa espero dugu Reset-ekin planteatzea eta Arte Eszenikoen eremuan kokatzea. Hiru desberdin egin nahi ditugu eta hirukik bi arte eszenikoei lotuta. Bat lotu nahi genuen arte zuzendaritza eta eszenografiarekin, eta bigarrena kaleko ikuskizunetan espezializatutako aktore, dantzari eta teknikarien inguruan. Kalekoa gainera anai-arreba pobreetan pobreena da.

Orain antolatuago daude ARTEKALE-ren inguruan eta ari dira pausoak ematen. Esatebaterako, konbenioa negoziatzen ari garen honetan, soldateeii

dagokienez, aretokoak eta kalekoak parekatu egin dira. Letretara bueltatuz, I letra da hirugarrena: ikus-garritasuna. Honetaz dagoeneko aritu gara.

Olatz- Bai, hor dago Datu Basea handitzearena, sare sozialetan emakumeak agertazaraztea, ostiralero zerbait ate-ratzen dugu...

Lehen esan duzue lehenak izan zinetela Datu Basea sortzen Europan?

Tessa- Bai hala da. Gerora ari dira gehiago sortzen eta ikerketak egiten baina bai...

Eta Datu Base horren erabileraz daturik baduzue?

Olatz- Ez. Baino hor oso positiboki baloratzen dugu kontratzaileak sartu izana. Bostekin hasi ginen eta orain ehun ditugu. Profesionalak dira zuzenean zerrenda horietan bilatzen dutenak. Baino datu zehatzik ez daukagu.

Eta Datu Base horrek handitzeko aukera asko ditu, ez? Gainera, orain, arte eszenikoetakora zabaltzean gehiago.

Tessa- Lan handia dago egiteko, esparru eta lan arlo askotako jendeak aurki baitezake babesra (H)EMEN-en, azken batean batzen gaituena emakumeak izatea da.

Laugarren letra, C, coworking.

Olatz- Coworking-a harremanak dira. Erakunde publikoekin, beste elkartea batzuekin, elkarrekin... Aliantza txikiak, hainbat iristen diren lekuetara gu ere iristeko bideak errazteko. Lekeitioko Zinemaldian, esaterako, urtero daukagu zerbait. Omenaldiak egiteko unean, adibidez, emakumeak izatea omendutakoak. Lekeitioko Kontxu Odriozolari egindakoa kasu.

Eta bukatzeko etorkizuneko E-a daukagu. Idatzi gabeko orri txuria da?

Tessa- Azken finean, bai...

Eta erronkak ipintzen dizkiozue zuen buruari? Adibidez... 2030erako portzentajetan zenbaki altuagoetara iristea?

Tessa- Ez da guk, gure aldetik, hobetzeko egin dezakengun lan bat. Gizarteak markatzen du erritmoa. Egia da gu hor egongo garela bultzaka baina...

Olatz- Sortzen ari dira aurrera begirako mugimendua. Estatu mailan, adibidez, GTI (Grupo de trabajo interterritorial) sortu da, (Galiziako, Kataluñako, Valentziako, Kanarietako...) emakumez osatua bakarrik. Eta beraien xedeen artean dago 2050erako, ez bada lehenago, %50ko kuartak egotea Espainia osoan. Hor bai jartzen dira zenbakiak baina gu saiatzen gara horretan ez erortzen arriskutsua iruditzen zaigulako.

Tessa- Amankomunean daukaguna da emakumeak



garela baina gero bakoitza mundu bat da. Eta gero gobernu bakoitzak babesten duena eta babesten ez duena differentea da ere. Batzutan elkar ulertzea, edo adostasunak bilatzea, ez da erraza izaten.

Olatz- Hor dago, adibidez ICAAk ezarritako %15aren derrigorra. Gero hori zabaldu egiten da eta hona ere iristen da. Pauso txiki horiek oso importanteak dira. Eta neurri horiek bultzatzen diren tokietan egotea garrantzitsua da ere. Errebote efektua ematen delako gero. Zeren nahiz eta hemen autonomia eduki nahi baino eskumen gutxiago ditugu arlo askotan. Gurean aurrea hartu dezakegu ere kanpotik etorriko denaren zai egon gabe. Alde guztietan egotea garrantzitsua da baina ez da beti erraza.

Kanpaina piska bat egingo dugu. Zergatik hartu beharko luke parte EAB-ko kide batek (H)EMEN-en?

Tessa- Ba, emakume izanagatik topatzen dituen arazoak, konkretuki, aztertzen ditugulako, aurre egiten diegulako.


Olatz- Gertuagotik, erraztasuna daukagulako ahaldunten lan horretan laguntzeko. Ikastaroak egiten ditugulako, Topakaketa profesional guzti horiek emakumeentzat direlako. Harreman guztiak daudelako emakume profesionaliei begira, sareetako eta ikusgarritasuna emateko. Horiek ez dira EAB-ren zerbitzuak, beste batzuk dituzuelako. Guk ez ditugu ikastaro profesionalak ematen, ikastaroak aktoreentzat, montatzileentzat... Guk genero ikuspuntutik egiten dugu lan.

Bukatzeko gogoeta bat?

Tessa- Laburbilduz, guk nahiko genukeena da (H)EMEN ez existitu behar izatea.

Olatz- Hori da. Datu Base hori izatea Euskal Herriko profesional guztien datu basea, aurreko lan guzia egina izango delako.

UNA MAYORÍA VISIBLE



Cada día me peleo contra la idea de que la igualdad en las artes sea una quimera. Ese famoso monstruo híbrido con cabeza de león, cuerpo de cabra y cola de dragón que representa ese sueño de algo que se anhela, pese a que su realización sea muy improbable, me visita cada semana en diferentes formatos. La última fue a través del video en el que varios neandertales comentaban la alfombra roja de los premios Goya de este año. Una gala histórica, con un 40% de mujeres nominadas y ahí estaba el monstruo, meneando la cola, como cada día. De ahí que me vea de nuevo escribiendo sobre este tema manido, trasnochado, tedioso y sin embargo tan... necesario.

Y es que, aunque la educación feminista hace siglos que es urgente, la desigualdad se cronifica pese a los esfuerzos puntuales. En nuestro sector la falta de representatividad de las mujeres en puestos clave de la industria teatral es un problema sistemático y sempiterno y mientras que, paradójicamente, se recurre a la cultura como un elemento de vital importancia para acabar con el sexism, las mujeres siguen discriminadas en todos los campos de actividad, ésta incluida.

Mientras que las artes escénicas se perfilan y vanaglorian como el sector más equilibrado en lo que a género respecta con un 48,1% de los puestos de trabajo ocupados por mujeres, no existe una correlación entre el acceso de las mujeres al mercado laboral teatral y su visibilidad dentro del mismo. A pesar de que las mujeres son mayoría como público, las obras escritas y dirigidas por mujeres son muchas menos.

El último informe sobre la evaluación de impacto en función de género en la cultura desarrollado por el Instituto Vasco de la Mujer en 2017 señalaba que:

Existen notables diferencias de género en el mundo de la cultura: las mujeres tienen una importante presencia como público consumidor, alcanzan niveles casi paritarios en los puestos de trabajo del sector cultural y, sin embargo, su peso en el mercado laboral es minoritario en casi todos los sectores, especialmente en los puestos de responsabilidad y toma de decisiones. Más minoritaria aún es su presencia como creadoras en los centros desde los que se difunde la cultura, como museos, teatros, salas de cine, etc. Esta desigualdad se traslada a las representaciones generadas desde el mundo de la cultura: las ideas e imágenes que circulan en los productos culturales minimizan el papel de las mujeres en la sociedad e insisten en situarlas en posiciones subordinadas. (Emakunde, 2017, p.7)

Clásicas y Modernas, la Asociación para la Igualdad de Género en la Cultura, publicaba el pasado año un estudio realizado en 579 espectáculos exhibidos en 24 teatros de gran relevancia del estado español. Los datos, sobre la temporada 2018/2019, apuntaban a que solo el 22% de las obras representadas en el estado español habían sido escritas por mujeres y sólo el 25% fueron dirigidas por ellas. La gestión de esos teatros pertenecía a mujeres en un 31%.

Al respecto de esta escasez, el último informe de la Academia de las Artes Escénicas sobre la igualdad, "La

Voz de la Academia: Igualdad en las Artes Escénicas”¹, presentado en enero del pasado año, señalaba igualmente que, como consecuencia de la menor presencia de autoras, directoras y productoras, se crean y producen menos papeles femeninos y, en consecuencia, existen menos posibilidades laborales ya que, además, cuando se crean personajes femeninos, estos no suelen ser protagónicos. Nada nuevo sobre el horizonte.

Si bien es cierto que el siglo XXI ha supuesto una emergencia de las autoras y directoras en parte gracias a políticas de apoyo social e institucional, no lo es menos que, en muchos casos, dicho apoyo se presta sobre todo a creadoras jóvenes y desde una actitud todavía demasiado próxima a los patrones del patriarcado, silenciando la labor de las creadoras contemporáneas maduras. Hablamos, por tanto, de la falta de modelos femeninos de éxito que hayan logrado mantener visible en el tiempo su trayectoria profesional. Hablamos de la necesidad de remitirnos a la economía feminista como pilar para el cambio, como eje para visibilizar la interrelación que hay entre relaciones las económicas y las relaciones de género e identificar cuáles son los mecanismos económicos que reproducen la desigualdad y cómo la desigualdad de género se relaciona con las desigualdades socioeconómicas.

Ahora bien, ¿cómo caminar hacia modelos de gestión más equilibrados cuando la armonía entre mujeres y hombres dentro de las programaciones teatrales en el País Vasco continúa siendo una utopía y la forma en que las mujeres podemos participar y somos representadas prosigue perpetuando miradas heteropatriarcales?

Los años se han encargado de perpetuar una jerarquía por la que todo aquello que realizan las mujeres tiene menor valor y carece de reconocimiento social mientras que aquello que se considera propio de los hombres adquiere prestigio, valor social y reconocimiento público. Y éste es el origen de las desigualdades. Las diferencias construidas socialmente son las que subordinan a las mujeres respecto de los hombres en todos los ámbitos y sectores. Es inevitable, por tanto, que esta desigualdad se traslade a las representaciones que el mundo de la cultura genera, dejándonos productos culturales en los que el papel de las mujeres se encuentra subordinado y/o invisibilizado. Asimismo, si nos fijamos en la presencia de las mujeres en las creaciones teatrales exhibidas, los últimos datos arrojados en 2018 por Kultura Auzolarean² señalan que sólo el 12% de las obras exhibidas en la CAE han sido escritas por mujeres; sólo el 21% han sido dirigidas exclusivamente por mujeres y en los repartos las obras exclusivamente con reparto femenino son un 21%.

Las acciones positivas en el sector cultural son muy necesarias para conseguir equilibrar la participación de mujeres y hombres en las artes, pero si algo se define como crucial es la estrategia de la transversalidad con la que deben complementarse este tipo de acciones específicas incidiendo especialmente en el ámbito de la educación y la formación, ya que desde estos espacios se construyen normas, valores y formas de ver el mundo y las relaciones entre mujeres y hombres que, según se enfoquen, pueden contribuir a transformar roles y estereotipos de género profundamente arraigados en nuestra cultura.

Es necesario el planteamiento de un conjunto de medidas que contribuya a mejorar los aspectos críticos detectados en este trabajo y que caminen hacia la construcción de un modelo de gestión feminista, y, por tanto, anticapitalista y democrático. Sobre las medidas a tomar, creo que hace tiempo que están ya claras, así que abramos de una vez este melón y dejemos de llenarnos la boca con buenas intenciones que quedan en nada. Trabajemos para dejar de vernos como esa minoría invisible porque... no señores, no se equivocuen; somos más en el País Vasco, en el estado español y en Europa. Y, por si aún no se han enterado, las mujeres somos mayoría: una mayoría más que visible.

María Goiricelaya



BILIOGRAFÍA

ACADEMIA DE LAS ARTES ESCÉNICAS DE ESPAÑA, 2019. La voz de la academia: igualdad en las artes escénicas, p.9. [En línea] Disponible en: <https://academiadelasartesescenicas.es/357-presentacion-de-la-voz-de-la-academia-igualdad-en-las-artes-escenicas/>


EMAKUNDE, 2017. La evaluación del impacto en función del género en la cultura. [En línea] Disponible en: http://www.emakunde.eus-kadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjunto s/cultura_es.pdf

CLÁSICAS Y MODERNAS, 2020. ¿Dónde están las mujeres en las artes escénicas? [En línea] Disponible en: <https://clasicasymodernas.org/wp-content/uploads/2020/09/2a-EDICION-DONDE-ES-TAN-LAS-MUJERES-DIGITAL.pdf>

KULTURA AUZOLANEAN, 2018. Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en creaciones y eventos culturales 2017, 1ª versión, pendiente de publicación.

VEIGA, Isabel. (2008) Gestión cultural y género. Revista GECA. (Gestores Culturales de Andalucía), nº 11, noviembre. Edita Asociación de Gestores Culturales de Andalucía. ISSN: 1695- 1794. Recuperado 22 de enero 2019, de <http://gecaandalucia.org/wp-content/uploads/2017/10/revistageca11.pdf>

EUSKARAZKO ANTZERKIA GENEROAREN BEGIRADATIK



2019. urtean Eusko Jaurlartzaren enkarguz emakume zein gizonek euskal antzerki sorkuntzan duten presentzia ikertzeko enkargua izan nuen. Nire ikerketaren eremua euskarazko antzerkira mugatu zen hori delako gehien ezagutzen dudan esparrua eta baita gehien interesatzen zaidana ere. Horrez gain uste nuen egin nezakeen ekarpenik esanguratsuena euskarazko sormenetik etorriko zela. Eusko Jaurlitzako lantialdea ados izan zen nirekin eta aurrera egin genuen lanaren garapenean. Ikerketa horren azken parteari dagokion iritzi artikuluan oinarritu nintzen "Karanbola hirukoitza" EHAZE-k argitaratuko liburua egituratzeko.

Aipatutako ikerketa burutzeko datu bilketa bat eraman nuen aurrera eta baita elkarritzeta multzo bat burutu ere. Elkarritzeta sorta honi esker 22 sortzaile emakume zein gizonezkoekin hitz egiteko aukera izan nuen eta bertan jasotako hitzak izan ziren nire ondorioak ateratzeko elikagai nagusia. Jarraian aipatuko ditut ateratako ondorio funtsekoenak.

Euskal Herriko jendartea, munduko jendarte gehienak bezala sistema hetero patriarkal baten bidez antolatuta dago. Interes politiko eta ekonomikoak direla medio, sistema honek, hiritarrok muturreko genero bitan banatzen ditu; gizonezkoak eta emakumezkoak. Banaketa bitar murriz honetan ez da kontutan hartzen Queer teoriak aspaldi aldarrikatutako genero anitzasuna zeinekin guztiz bat natorren. Generoak mutur bitan banatzeaz gain sistemak lan ezberdinak esleitzen dizkie batean zein bestean sailkatutako pertsonei; gizonezkoiekin lan produktorea eta emakumezkoiekin aldziz, erreprodukzio lana. Horrela ba, patriarkatuak lan bakoitza aurrera eramateko ustez beharrezko zaizkion ezaugarriak esleituko dizkio genero

